

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektua aurrera eraman ahal izateko beharrezko deritzogu beste enpresa batzuekin hainbat elkarte sortzea, bai produktua sortzeko, eta baita bezero posibleek gure berri izan dezaten ere.

Lehenengo, jada erabilgarri ez diren (zuloren bat dutelako, edo) supermerkatuetako poltsak eskuratuko dizkigun enpresa hornitzaile batekin elkartuko ginateke, salgai jarritako poltsak iraunkorrak izan daitezten. Hori Zubelzu enpresarekin egingo dugu; honek plastikoa fabrikatzen du, eta beraiei eskatuko diegu supermerkatuetako poltsa jasotzea eta ondoren guri ematea. Beraiekin harremanetan jarri gara eta beraien lan-plana asko gustatu zaigunez, beraiekin lan egingo dugu.

Bigarren elkarte publikitate enpresa batekin eratuko genuke, gure misioa eta ikusmira adierazita, merkatuan gure lekua hartzen lagun diezagun. Horretarako, Gattiken enpresarekin harremanetan jarri gara; herrian kokaturik dagoen enpresa bat da, eta adituak dira enpresa promozionatzeko bideoak sortzen; zure enpresa edo ekoizten duzun produktua munduan ezagutarazteko bideo promozionalak egiten dituzte, eta gurea ezagutarazteko aukera ederra dela pentsatzen dugu.

Gainera, TEKNIMAP eta Ingure S.L. enpresekin akordio batera iritsi gara. Bi enpresa hauek ingurumen-aholkariak dira, eta beraien laguntzaz ingurumenari buruzko informazioa irabaziko dugu eta jendeari informazioa zabaltzeko aberastasuna irabaziko dugu. Haien laguntzaz, KAMI enpresaren poltsen erabilpena ziurtatuko dugu eta erabilera bakarrerako poltsak albo batera errazago uzteko aukera bikaina ematen arituko gara.

Publizitatea egiterako orduan, Gattiken enpresaz gain, herriko irratian iragarpen bat egitea pentsatu dugu, herritarrek gure berri izan dezaten; gure herriko irratia "KKInzona" da, eta beraiekin hitz egingo dugu akordio bat egiteko. Horrez gain, Euskal Herriko Eitb katean iragarki bat jartzea ere pentsatu dugu; Udaneren ama bertako langilea denez, bera jarriko da langileekin harremanetan eta horrekin denbora asko aurreztuko dugu.

Gure ideia nagusienetako bat gobernuari eta udalari gure proiektuari buruzko informazioa ematea da, beraiek ikus dezaten zenbat hobetu dezaken udalerririk gure proposamenarekin. Horregatik, Euskal Herriko lehendakariarekin bilduko gara eta gure herriko alkatearekin. Bakoitzarekin bilera bat egingo dugu eta beraien iritzia eskatuko diegu. Horrez gain, iradokizunen bat edukiko balute edota lagundu nahi izango balute, gustu handiz eskertuko genieke.

Herrian Uggasa dago: hau Urola Garaiko Garapenerako Agentzia da, eta bertan enpresak sortzeko laguntza, enplegu zerbitzua... daude. Beraiekin hitz egin dugu eta gure enpresa abian jartzen lagunduko digute. Horretarako, egun batean beraiekin geratu gara, eta gure asmoez berri emango diegu, beraien iradokizun eta iritzia kontutan hartuz. Beraiekin aholku eta laguntza asko espero ditugu gure enpresa sortu ahal izateko.

Bankuari mailegu bat eskatuko diogu hau dena martxan jartzeko, nahiz eta gure aurrezkiak erabiliko ditugun. Rural Kutxarekin jarriko gara harremanetan: 2000€-ko mailegu bat eskatuko diegu, eta, ondoren, %1'5-eko interesak ordaindu beharko dizkiegu.

Makinak muntatzeko orduan Amalurren amak lagunduko digu, eta, laguntza gehiago behar izanez gero, gertuko familia kide edota lagunengana joko dugu. Gainera, gobernuari eta udalari diru laguntza bat eskatzen saiatuko gara, beraiek ados egonez gero.

Abokatu bat kontratatuko dugu, baina Eleneren ama abokatua denez, berarengana joko dugu; deskontu bat izango dugu familiakoa izategatik, baina, hala ere, kostu bat izango da. Azkenik, aseguru batekin akordio bat sinatu nahi dugu; laneko istripuren bat izanez gero edota diru kontutan arazoak izanez gero, beraiengana joko dugu. Horregatik, pasa den urtean Allianz aseguruaren esku utzi genuenez eta hain ondo joan zitzaigunez, berriz ere beraiengana joko dugu. Pasa den urtean animalien etxola bat sortu genuen, eta izugarri lagundu ziguten eduki genituen arazoetan.



Allianz



TEKNIMAP
ENERGÍA Y MEDIO AMBIENTE